

## 2014KO ABENDUAREN 2AN, UDALBATZAK EGINDAKO OHIKO OSO BILKURAREN AKTA.-

### BERTARATUAK:

#### LEHENDAKARIA:

Esteban García Campijo jn.

#### ZINEGOTZIAK:

Juanjo García de Acilu Pérez jn.  
Santos Gómez de Segura Quintana jn.  
Mariví Martínez de Antoñana Chasco and.  
Juana María Arroniz Arroniz and.  
Aitor Aguirre Galdós jn.  
Jon Arenaza Sáenz del Burgo jn.  
Esteban Elorza Echazarra jn.  
Juan José Berrueta Chasco jn.

IDAZKARIA: Miguel A. Oliveira Barral, ekitaldiaren fede ematen du.

Santikurutzeko Kanpezun, Kanpezuko Udal Ohoretsuaren Udaletxeko Bilkura Aretoan, bi mila eta hamalauko abenduaren 2an, arratsaldeko zazpiak eta hamar zirela, goian esandako Zinegotziak lehen deialdian elkartu ziren Udalbatzaren ohiko osoko bilkura egiteko Esteban García Campijo Alkate-Lehendakari jaunaren lehendakaritzapean, Idazkari-Kontuhartzailea bertan egonda.

Jarraian, apirilaren 2ko 7/1985 Erregimen Lokalaren Oinarriak arautzen dituen Legearen 46.2.C) artikuluan eta azaroaren 28ko 2568/1986 onetsitako Tokiko Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiko 90. artikuluan zehaztutakoaren arabera, behar besteko quoruma egiaztatzeari ekin diote, eta batzordea eratutzat jo da. Ondoren, gai-zerrendako aztergaiak aztertzen hasi dira.

### 1.- AKTEN ONESPENA

Lehendakari jaunak galdetu du Udalbatzaren kideren batek esatekorik duen 2014ko urriaren 2ko ohiko bilkuraren aktari buruz. Horren kopia helarazi zitzaion Zinegotzi jaun guztiei, oraingo bilkurarako deiarekin batera.

Aurkeztutako aktak aho batez onartu egiten dira. Lehendakari jaunak onartu direla adierazten du; eta haien transkripzioa Akten Liburura egitea agintzen du, **R.O.F** 110.2 artikuluan ezarritakoaren arabera

### 2.- ALKATETZAREN DEKRETUAK

Zkia.	Data	Edukia
129	2014/10/03	GAINBALIOEN KITAPENAREN ONESPENA
130	2014/10/06	2013-2014 EUSKARA ESKOLEN KITAPENA
131	2014/10/07	EPAITEGIARI KOMUNIKAZIOA EPAIA BETEARAZTEKO ORGANO ARDURADUNA
132	2014/10/08	BANKU-TRANSFERENTZIA-BIDALKETAREN ONESPENA
133	2014/10/10	ZATIKETA HORIZONTALEKO LIZENTZIA UKATZEA – SANTIKURUTZEKO SANTA ELENA 13 ERAIKINA

134	2014/10/10	OBREN LIZENTZIA UKATZEA- TEILATUAREN KONPONKETA HORRADICHO ERR. 31 ORBISO
134-BIS	2014/10/15	OBREN LIZENTZIA EMATEA- ETXEBIZITZA ETA BARRUKO URBANIZAZIOAREN BERRITZEA
135	2014/10/15	NATURGAS-USTIAPENAGATIKO TASAREN ONESPENA. 2014KO 3. HIRUHILEKOA
136	2014/10/15	MIGUEL ANGEL OLVEIRA BARRALI LAUGARREN ANTZINATE-HIRURTEKOAREN ONESPENA
137	2014/10/20	OBREN LIZENTZIA EMATEA-FATXADA ETA TEILATU-HEGAL ETA-HODIEN KONPONKETA LA VILLA, 22
138	2014/10/20	OBREN LIZENTZIA EMATEA- ESTALKIAREN KONPONKETA BUJANDAKO KALE NAGUSIA,4
139	2014/10/20	GAINBALIOEN KITAPENAREN ONESPENA
140	2014/10/21	GAINBALIOEN KITAPENAREN ONESPENA
141	2014/10/23	BETEARAZTEKO AGINDUA SANTIKURUTZE KANPEZUKO SUBIDA AL PORTAL K. 8KO ERAIKINA
142	2014/10/28	TRAKZIO MEKANIKO IBILGAILUEN GAIKEKO ZERGA-HOBARIA B-3792-KL ANTZINATASUNAGATIK
143	2014/10/28	OBREN LIZENTZIA EMATEA- FATXADA MARGOTZEA GASTEIZ-LIZARRA ERR.,22AN
144	2014/10/28	OBREN LIZENTZIA EMATEA- 1 POLIGONOKO 462 LURSAILAREN ITXITURA
145	2014/10/28	OBREN LIZENTZIA EMATEA- ERAIKINAREN SENDOTZEA SANTIKURUTZEKO ARRABAL K., 4AN
146	2014/10/28	OBREN LIZENTZIA EMATEA- TEILATUAREN KONPONKETA HERRERIA K., 26 ORBISO
147	2014/10/28	OBRA BUKAERAKO ZIURTAGIRIAREN ONESPENA- KONSULTATEGIAREN URBANIZAZIOA
148	2014/10/28	OBRA ZUZENKETAKO FAKTURAREN ONESPENA- KONSULTATEGIAREN URBANIZAZIOA
149	2014/11/04	BANKU-TRANSFERENTZIA
150	2014/11/10	OROIMENAREN EGUNEKO ADIERAZPENAREN ONESPENA
151	2014/11/10	KULTURA ETXEKO IRISGARRITASUNA HOBETZEKO OBRAREN ZUZENBIDE TEKNIKOAREN ONESPENA
152	2014/11/10	GAINBALIOEN KITAPENAREN ONESPENA
153	2014/11/11	KREDITU-GAIKUNTZA 03/2014 ESPEDIENTEA
154	2014/11/13	OBREN LIZENTZIA EMATEA- ETXEBIZITZAREN BERRITZEA CASTILLO K., 17
155	2014/11/14	OBREN LIZENTZIA EMATEA- ETXEBIZITZAREN BERRITZEA CASTILLO K., 15
156	2014/11/14	OBREN LIZENTZIA EMATEA- BILTEGIAREN TEILATU-HODIAREN BIRGAITZEA
157	2014/11/14	OBREN LIZENTZIA EMATEA- HORMAREN ESTALDURA ETA SARRERAN LAUZAK JARTZEA
158	2014/11/17	484/2014 PROZEDURA ARRUNTEAN PERTSONATZEA
159	2014/11/18	HASIERAKO ONESPENA – ORBISOKO UER-6
160	2014/11/21	OBREN LIZENTZIA EMATEA- LEIHOEN ALDAKETA SANTIKURUTZEKO ARRABAL K., 28
161	2014/11/21	OBREN LIZENTZIA EMATEA- TEILATU-HODI ETA ZOLATAREN KONPONKETA
162	2014/11/27	AZAROAREN BANKU-TRANSFERENTZIA
163	2014/11/27	2014KO ABENDUAREN 2KO OSOKO BILKURA-DEIALDIA

### 3.- A.F.A.KO OBRA TXIKIAK EGITEKO DIRULAGUNTZA DEIALDIAN PARTE HARTZEKO ONESPENA, BIDEZKOA BADA

#### ESPOSIZIO-ATALA:

Ikusirik Diputatuen Kontseiluaren 603/2014 Erabakia, azaroaren 11koa, 2014ko azaroaren 19an 132. zenbakiko ALHAOn argitaratua, zeina Arabako zenbait toki erakunderi Obra Txikiak Egiteko 2015eko Programako laguntzak emateko deialdiaren oinarriak onartzen dituen.

Ikusirik haren helburua, eta herritarrei arreta emateko Subida a la Iglesia kaleko lokalaren berrikuntza egiteko asmoa.

Ikusirik apirilaren 2ko Toki Araubidearen Oinarrietako 7/85 Legeak esleitutako eskumenak.

#### XEDAPENAK:

**ERABAKIA:** Aldeko 4 boto eman dituzte García, García de Acilu, Gómez de Segura eta Martínez de Antoñana zinegotzi jaun-andreek, kontrako 4 boto Arroniz, Arenaza, Elorza eta Berrueta zinegotzi jaun-andreek eta Aguirre zinegotzi jaunaren abstentzioarekin erabaki da ondokoa.

**LEHENA:** Arabako Foru Aldundiak 2014 urterako obra txikiak egiteko deitutako dirulaguntzan parte hartzea, honako jarduerarekin: "HERRITARREI ARRETA EMATEKO LOKALAREN EGOKITZEA"

BIGARRENA: Ahalmentzea alkate-lehendakariari esandako dirulaguntza aurkezteko beharrezko agiriak sinatu ahal izateko.

#### 4.- KANPEZUKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO ORDENANTZAREN HASIERAKO ONESPENA, BIDEZKOA BADA

##### ESPOSIZIO-ATALA:

Ikusirik Kanpezuko Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Ordenantza sortzeko espedientea izapidetu egin dela, Alkatezaren proposamenaren arabera.

Ikusirik uztailaren 19ko Tokiko Ogasunak arautzen dituen 41/1989 Foru Arauak bere 16. eta 18. bitarteko artikuluetan, eta apirilaren 2ko Toki Araubidearen Oinarrietako 7/85 Legeak bere 22. eta 47. artikuluetan xedatutakoa.

##### EZTABAIDA-PARTE HARTZEA

Aguirre jaunak galdetu du udalerriko elkarteren bat parte hartu duen ordenantzaren prestaketan.

Alkate jaunak adierazi du herritar guztiei ireki zaiela, alegaziorik jaso ez diren arren. Nolanahi ere, ez da behin betiko testua, garapena izateko irekita dagoena baizik.

Aguirre jaunak galdetu du ordenantza babesten duen aurrekonturik dagoen. Alkate jaunak adierazi du sinbolikoa dela, izan ere %0,01 gorde da eta.

##### XEDAPENAK:

ERABAKIA: Aldeko 6 boto eman dituzte García, García de Acilu, Gómez de Segura eta Martínez de Antoñana Elorza eta Berrueta zinegotzi jaun-andreek, eta Aguirre Arroniz, Arenaza, zinegotzi jaun-andreen 3 abstentzioekin erabaki da ondokoa.

LEHENA: Hasierako onespena ematea Kanpezuko Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Ordenantzari.

BIGARRENA: Behin-behineko akordio hau jendaurrean jartzea Udal honen Iragarki Taulan hogeita hamar egunez (30), ALHAOn argitaratuko denetik kontaktzen hasita; interesdunek espedientea aztertu eta erreklamazioak aurkezteko aukera izan dezaten.

HIRUGARRENA: Agiria jendaurrean epealdia bukatuta, bidezkoa den behin betiko erabakia hartuko da, aurkeztutako erreklamazioei erantzuna emanez.

Epe horretan erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, behin-behineko erabakia behin betikotzat joko da, besterik gabe.

LAUGARRENA: Behin betiko erabakia, halako kategoriatzat jotako behin-behinekoa barruan hartzen duena, eta aldaketaren testu osoa ALHAOn argitaratuko dira.

## 5.- 2015EKO EKITALDIAREN AURREKONTU NAGUSIAREN HASIERAKO ONESPENA, BIDEZKOA BADA

### ESPOSIZIO-ATALA:

2015eko ekitaldirako Entitatearen Aurrekontu Orokorra onartzeko espediente izapidetua eta osatzen duen dokumentazioa aztertu ondoren.

### EZTABAIDA-PARTE HARTZEA

Alkate jaunak adierazi du talde politikoei igorri zaiela proposamen hau.

Parte hartzaileek aurkeztutako proposamenean azaltzen diren zenbait aurrekontu partidak eztabaidatu egiten dituzte.

### XEDAPENAK:

**ERABAKIA:** Aurkako 5 boto eman dituzte Aguirre Arroniz, Arenaza, Elorza eta Berrueta zinegotzi jaun-andreek eta aldeko 4 boto eman dituzte García, García de Acilu, Gómez de Segura eta Martínez de Antoñana. Ondokoa erabaki da.

**LEHENA:** 2015eko ekitaldiaren aurrekontu nagusiaren proposamena ukatzea.

## 6.- "EUSKARAREN EGUNA" DELA ETA ADIERAZPENA INSTITUZIONALAREN HASIERAKO ONESPENA, BIDEZKOA BADA

El 3 de diciembre es el Día Internacional del Euskera. Día para reivindicar el valor universal del euskera, y día para reclamar para el euskera el lugar que le corresponde entre el resto de idiomas.

Es día para celebrar y para reafirmar los compromisos.

Día para celebrar, puesto que la evolución del euskera es tomada como ejemplar en el mundo. En el euskera, en general, se ha producido un gran avance en las tres últimas décadas, tiene más hablantes de los que ha tenido nunca, y en numerosos ámbitos de la vida social el uso del euskera va aumentando.

Sin embargo, a pesar de que la evolución del euskera en los últimos años ha sido impresionante, la propia UNESCO ha colocado al euskera en la lista de idiomas débiles.

Por eso, es día de comprometerse, porque tenemos mucho que hacer si queremos que el euskera llegue a la igualdad social que disfrutaban los dos idiomas que tiene al lado. A pesar de que estamos en una sociedad cada vez más bilingüe, todavía el euskera tiene camino para recorrer y llegar al bilingüismo equilibrado. Y para ello es imprescindible impulsar y materializar iniciativas y prácticas acordadas y democráticas que nos lleven a la convivencia entre los idiomas y los/las hablantes tomando como eje principal la promoción del euskera. Siempre teniendo en cuenta que el uso es el combustible único en la fuerza vital del euskera y de cualquier idioma.

Si el euskera se ha normalizar necesita sin falta una nueva política lingüística y la activación de los ciudadanos/as. Es necesario que desde hoy mismo, en este municipio nuestro, para poner el euskera en el camino hacia la normalización tomar una política y decisiones valientes. Recientemente, hemos aprobado el Plan de Uso (2014-2017) interno de la entidad, y hoy presentamos el Plan de actuación para la Promoción

del Euskera (2014-2018). El Ayuntamiento trabajará para que dichos planes sean fructíferos y para que desarrollemos todas sus potencialidades.

Usemos el euskera, pues, y trabajemos juntos y juntas el acuerdo social y político amplio y profundo que lleve al euskera hacia un futuro provechoso.

Porque el euskera nos necesita a todos/as, y todos/as necesitamos el euskera.

Abenduaren 3a Euskararen Nazioarteko Eguna da. Euskararen balio unibertsala aldarrikatzeko eguna da, eta euskararentzat beste hizkuntzen artean dagokion tokia aldarrikatzeko eguna. Ospatzeko eguna eta konpromisoak berresteko eguna da.

Ospatzeko eguna da, euskararen bilakaera munduan eredutzat hartzen baita. Euskarak, oro har, aurrerakada handia egin du azken hiru hamarkadotan, inoiz izan dituen baino hiztun gehiago ditu, eta gizarte-bizitzako esparru ugarritan goraka doa euskararen erabilera.

Azken urteetan, euskararen bilakaera izugarria izan bada ere, UNESCOk berak hizkuntza ahulen zerrendan jarri du euskara.

Horregatik, konpromisoak hartzeko eguna da, oraindik ere asko dugulako egiteko euskara ondoan dituen hizkuntza bien berdintasun sozialera heltzea nahi badugu. Gero eta gizarte elebidunago baten bagaude ere, euskarak bidea egin beharra dauka oraindik, elebitasun orekatura iristeko. Eta horretarako ezinbestekoena, euskararen sustapena ardatz nagusi hartuta hizkuntzen eta hiztunen arteko bizikidetzara eramango gaituzten ekimen eta praktika adostu eta demokratikoak bultzatzea eta gauzatzea da. Kontuan izanik, betiere, erabilera dela euskararen eta beste edozein hizkuntzaren bizi-indarraren erregai bakarra.

Euskara normalizatuko bada hizkuntza politika berria eta herritarren aktibazioa behar ditu ezinbestean. Beharrezkoa da gaurdanik, gure udalerrri honetan, euskara normalizazio bidean jartzeko politika eta erabaki ausartak hartzea. Berriki, onartu izan dugu erakunde barneko Erabilera Plana (2014-2017), eta gaur Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (2014-2018) aurkezten dugu. Udalak lan egingo du plan horiek emankorrak izan daitezen, eta dituzten gaitasun guztiak gara ditzagun.

Erabili dezagun, bada, euskara, eta landu dezagun elkarrekin euskara etorkizun oparo baterantz eraman dezakeen adostasun sozial eta politikoa zabal eta sakona.

Euskarak denok behar gaituelako, eta denok euskara behar dugulako.

Aldeko 7 boto eman dituzte García, García de Acilu, Gómez de Segura, Martínez de Antoñana, Aguirre, Arroniz, eta Arenaza zinegotzi jaun-andreek, eta aurkako 2 boto Elorza eta Berrueta zinegotzi jaun-andreek; hortaz, onartu egin da.

## 7.- LEHENDAKARITZAREN TXOSTENAK

Aurreko batzarretik, Alkate jaunak landu dituen bestelako gaiak azaltzen ditu:

- Zenbait bilera izan ditu:

### 1.- Eusko Jaurlaritza:

- \*SEGURTASUN SAILA (Kanpezun dauden zerbitzuen berrantolaketa-**M.A.**)
- \*INGURUMENA ETA BIODIBERTSITATE SAILA (ingurumena hobetzeko Proiektu pilotua +Natura 2000 Sarea)
- \*SEGURTASUN SAILA/EUDEL (Mugikortasuna-Segurtasuna eta Generoa)
- \*MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA (Turismo eta Generoa)
- \*LANDA GARAPENA SAILA/HAEE (EB PROGRAMAK)
- \*LANBIDE (Enplegu berdea proiektua)
- \*LANDA GARAPENA SAILA/HAZI (Erein/Leader/Biomasa/Camper)
- \*INGURUMEN SAILA (Azpiegiturak eta Lurralde Berrikuntza)
- \*ETXEBIZITZA SAILA (Erakundeen berritzea)

### 2.-Arabako Foru Aldundia:

- \*INGURUMEN SAILA (Ur zikinen araztegi lotura proiektua/Bide Berdea/Garbigunea/HAPO)
- \*OGASUN SAILA (izendunak)
- \*MENDI SAILA (Biomasa araudia)
- \*FORU PLANA SAILA (UCEIS)
- \*GIZARTE ZERBITZUEN SAILA (Berdintasun Proiektuak-INDESA)

### 3.- IBERDROLA

### 4.- AMPEA

### 5.- ACOA-AKE

Honez gain, Alkate jaunak adierazi du pasa den asteburuan, udal instalazioetan boikotaren antza duten gertaerak izan direla; adibidez, polikiroldegian hustubide hodia buxatu egin da bi Coca-Cola latekin, su-itxalgailua hustu egin dira eta segurtasunerako atea apurtu da. Kultur Etxean, atea bortzaz apurtu dira.

Arroniz Andreak ondo ez deritzola adierazi du; herrian dagoen haserrea azalarazten duela, agian.

## 7.- ESKARIAK ETA GALDERAK

Alkate jaunak galdetu du bertaratuek galderarik egin nahi dituzten.

Aguirre jaunak kultur-etxeke lanak bukatzeko epea aipatu du, Alkate jaunak argitu du hilabete bukaerarako espero dela lanak amaituta egotea.

Arroniz andreak galdetu du zergatik ez diren Udaleko kartel guztiak euskaraz jartzen iragarki taulan, eskegitako bat horrela ez dago eta. Idazkari Jaunak azaltzen du kartel guztiak beti euskaraz jartzen direla, eta gaur, aurreratu da abenduko programazio kulturalarena gaztelaniaz, denbora faltagatik eta euskara teknikariak ez duelako gaur bukatu, bihar lehen orduan jarrita egongo da.

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez dagoenez, Alkate-Presidenteak bilkura amaitutzat eman du egun bereko arratsaldeko zortziak eta hamabost minutuetan. Nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.